



## HABE

HELDUEN ALFABETATZE ETA  
BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

# 7

## 1. **Sarrera**

- 1.1. Helduen Euskalduntzea eta Alfabetatzea
- 1.2. Jarduera-ildoen eskema
- 1.3. Aurrekontua

## 2. **Jarduera-ildoak**

- 2.1. Didaktika-zerbitzuak
- 2.2. Ebaluazioa eta ziurtagiriak
- 2.3. Sektorearen antolamendua, jarraipena eta finantzaketa

## 3. **Etorkizuneko erronkak**



### 1. Sarrera

#### 1.1. Helduen Euskalduntzea eta Alfabetatzea

Helduen euskalduntzea, gaur egun ezagutzen den bezala, ez da aspaldiko gertaera; 60 ondoko urteetan hasitako fenomeno bat dela esan daiteke. Asmo onez, euskararen aldeko militantismoz betetako hasiera bat izan zen, bai ikasleen aldetik bai irakasleen aldetik. Hasiera horretan indar handiagoa izan zuen alfabetatzeak euskalduntzeak berak baino. 1970-1980 bitarteko hamarraldia giltzarrizko aldia izan zen gaur egun euskaltegiak direna sortzeko; garai horretan sortu ziren helduen euskalduntzeko lehenengo ikastetxeak, erakundeak eta profesionalak.

Eusko Jaurlaritzak 1981ean jarri zuen abian HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea). Izaera administratiboa duen nortasun juridiko bereziko institutu autonomo publiko bat da, legez Eusko Legebiltzarren 29/1983 Legeak sortua eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara atxikia. Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonen euskara irakastea du eginkizuna, hala ahalik eta eperik laburrenean erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan trebezia eta arintasunez mintzatzeko gai diren ahalik eta pertsona gehien izatea lortzeko helburuarekin. Hauek dira HABEren eginkizunak:

- Pertsona helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko curriculum diseinatzea eta inplementatzea.
- Material didaktikoak prestatzea eta homologatzea.
- Irakaslearen etengabeko prestakuntza.
- Argitalpenak sortzea eta kudeatzea.
- Hizkuntzalaritza gaietan espezializatutako liburutegi publikoaren zerbitzua.
- Euskaltegi publikoen eta pribatuen jardura eta haien finantzaketa arautzea.

- Ikasleei euskara hobetzeko eta ikasteko tresnak eskaintzea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Euskal kulturako gainerako instituzio eta elkarteekiko elkarlana.

## 1.2. **Jarduera-ildoen eskema**

HABE Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Etxeetan pertsona helduen euskalduntzea zuzentzeaz, koordinatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da. HABEren egitura instituzionalari dagokionez, erakunde honek badu Zuzendaritza Patronatu bat, eta haren mende dago Zuzendari Nagusia. Zuzendaritza bera bi Zerbitzutan egituratuta dago: Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua eta Kudeaketa Zerbitzua; zerbitzuok era honetan antolatzen dituzte beren jarduera nagusiak:

- Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua sei sailetan dago antolatuta: Curriculumaren Garapena, Ebaluazioa, Formazioa, Didaktika Materiala, Programa bereziak eta Baliabide Didaktikoak.
- Kudeaketa Zerbitzuak Ikuskaritza, Informatika, Ekonomia eta Administrazioa, Lege eta Lan Arloa, Harrera eta Informazioa eta Liburutegia sailak ditu.

HABEren jarduera hiru jarduera-ildo hauetan antolatzen da: alde batetik irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako xedatuak, didaktika-zerbitzuak eta ebaluazioa eta ziurtagiriak, adibidez, eta, bestetik, euskalduntze-alfabetatzeko sektorearen arautzea, jarraipena egitea eta finantzatzea.

Azpimarratu beharra dago HABEren jarduera-ildoak garatzeko ezinbestekoak direla euskaltegiak, Institutuaren beraren egituraz kanpoko erakundeak direnak, baina sistemarentzat ezinbestekoak, horiek baitira zerbitzua egiaz gauzatu dutenak eta ikasleekin zuzeneko harremanetan daudenak. Laburtuz, bada, HABEren irismena euskaltegitara, irakasleengana eta, ezinezkoa baita bestela, bere jardueraren ardatz nagusia diren ikasleengana zabaltzen da.

## 1.3. **Aurrekontua**

HABEren aurrekontua 2009an eta 2010ean 45 milioi euro ingurukoa da. HABEk, Institutu publiko autonomoa denez, bere gastu- eta sarrera-aurrekontu finkoa du.

HABEren gastu-aurrekontuaren gehiena (%76) euskaltegientzako eta auto-ikaskuntzako ikastetxeentzako diru-laguntzek eta ikasleentzako laguntzek hartzen dute. Beste alde batetik hitzarmenak ditu HAEErekin, Osakidetzarekin,

Hezkuntza Sailarekin eta Justizia Sailarekin. Sektore horietatik datozen ikasleen matrikulak HABEk ordaintzen ditu (%10). Beraz, laburtuz, aurrekontu osoaren %86 laguntzetarako bideratzen da. %14 erakundearen beraren gastuak dira, eta horietatik %8 langile-gastuak dira.

Sarrera-aurrekontuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila da finantzaketa-iturburu nagusia (%66-68); zehazki esateko, 29,7 milioi euro 2009an eta 30,6 milioi 2010ean. Horrez gainera, sektore publikoko ikasleen matrikulak eta bere diru-sarrerak hartu behar dira kontuan (argitalpenen salmentak, azterketako eskubideak, tasak eta ziurtagiriak...); denen artean 14,4 milioi euro izan ziren 2009an (%32) eta 13,6 milioi euro 2010ean (%30,2).

#### HABEren aurrekontua. 2009-2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
Gastuak	45.200.000	100	44.984.000	100
Langile-gastuak	3.835.100	8,5	3.849.000	8,6
Funtzionamendu-gastuak	6.938.000	15,3	6.720.000	14,9
Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	34.176.900	75,6	34.165.000	75,9
Inbertsio errealak	200.000	0,4	200.000	0,4
Finantza-aktiboen gehikuntza	50.000	0,1	50.000	0,1
<b>ZERBITZUAK</b>	<b>45.200.000</b>	<b>100</b>	<b>44.984.000</b>	<b>100</b>
Kultura Sailaren ekarpenak	29.792.000	65,9	30.631.424	68,1
Tasak eta zerbitzu publikoak	14.443.000	32,0	13.590.576	30,2
Ondasun-sarrerak	10.000	0,0	2.000	0,0
Finantza-ondasunak gutxitzea	955.000	2,1	760.000	1,7

## 2. **Jarduera-ildoak**

### 2.1. **Irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako didaktika-zerbitzuak**

#### **Testuingurua. Irakaskuntza prozesuarentzako laguntzako edukiak eta zerbitzuak**

HABEren eginkizunetako bat pertsona helduen euskalduntzeari eta alfabetatzeari dagozkien curriculum diseinuak sortu, diseinatu eta ondoren aplikatzea da, curriculum horien planifikazio arrazional bat egiten ahaleginduz eta irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuz. Oinarrizko Curriculumak hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza printzipioetan oinarrituta, euskararen irakaskuntzaren helburuei eta edukiei buruzko informazioa eskaintzen duen dokumentu bat da.

Curriculumaren garapenaz gainera, helduen euskalduntzea hobetzeko eta berritzeko bestelako edukiak eta didaktika-zerbitzuak daude. Esan beharra dago 105 euskaltegi daudela gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan eta 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan 39.000 ikasle inguru izan zituztela ikasturte bakoitzean. Ikasleriari dagokionez, hamar ikasletik ia zazpi emakumezkoak dira, eta batez besteko adina 34 urte ingurukoa da. Ikasleen lanbideari dagokionez, ikasleena (%20) eta funtzionarioena (%25) dira talderik handienak.

1.500 irakasle dira, guztira; horiez gainera beste 200 profesional ere badaude, beste eginkizun batzuetarako. Langile gehienak emakumezkoak dira (hamarretik zazpi); %28k unibertsitate mailako lizentzia titulua du.

Pertsona helduei euskara irakasteko eta haiek ikasteko komunikazio ona, zerbitzuak, homologazioa eta material didaktikoetarako irismen erraza eta teknologia berriak erabiltzeko aukera behar duen sare bat, beraz.

#### **Programak. Didaktika kalitate oneko irakaskuntza baten zerbitzura**

**Curriculum garapena.** Euskalduntze eta alfabetatze prozesua bideratzeko oinarria Helduen Euskalduntzeko Oinarrizko Curriculum Orokorra da, 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduz onartua eta laugarren mailari dagokionez 2006ko martxoaren 13ko Aginduz garatua. Une honetan 2000. urteko curriculumak dago indarrean; curriculum horretan azkeneko hogeitau huetan ikusi diren premiei erantzuteko oinarrizko jarduera-marko bat definitu nahi da. Curriculum horren ezaugarrien artean azpimarratzekoa da garatu beharreko oinarrizko diseinu bat dela, curriculumaren diseinua demokratizatu egiten duela, eragile gehiagori sarrera emanez, prozesuan bezala produktuan ere eragina duela eta ikaslea egiten duela prozesu osoa egituratzen duen ardatza.

Laburtuz, bada, HABEk indarrean jarritako oinarrizko curriculumak euskaltegi bakoitzak bere premietara egokitze-ko eguneratu behar du, bere egoera soziolinguistikoaren eta bere ikasleen ezaugarrien arabera. 2009an eta

2010ean curriculumaren lehen maila orokorrari dagozkion azpi-mailak garatu dira, eta euskaltegiek beren planak eta txostenak egin ditzaten bultzatu da, ikastetxe horien etengabeko hobe-kuntza eta autoebaluazioa bultzatzeko tresna gisa.

Curriculumaz gainera, Europar Batzordeko Hizkuntza Politikarako Sailak prestatutako Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua da garrantzi handia duen tresna bat gaur egungo helduen euskalduntzeari eta alfabetatzeari dagokienez. Oso laguntza handia da bai irakasleentzat bai ikasleentzat, curriculumak eta Programak prestatzeko, helburuak definitzeko eta trebeziak neurtzekoan eta ebaluatzekoan estandar bateratuak eta balioideak erabiltzeko.

**Materialak prestatzea eta homologatzea.** Material didaktikoak dira euskararen irakaskuntza berritzeko eta hobetzeko oinarririk garrantzizkoenetako bat. 2009an eta 2010ean hasierako mailtarako unitate didaktikoak eta irakaskuntza birtualerako materialak landu dira. A1-erako unitate didaktikoak, Osakidetzako langileentzako materialak eta IKASBILen aurkezteko beste batzuk landu dira, zehazki. Horrez gainera etorkinei harrera egiteko eta hasierako ikastaroak antolatu dira, «Aisa» materialekin, eta ikastaro bereziak antolatu dira merkataritzako eta ostalaritzako langileentzat, «Dendaketan» eta «Ostalaritza» izeneko materialak erabiliz.

**Irakasleen prestakuntza.** Irakasleen etengabeko prestakuntza-ereduaren helburua Administrazioetik eta Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzutik bertatik agertzen diren premiak asetzea eta euskaltegiek, aurrez aurre, on-line edo bietara egindako eskakizunei erantzutea da. Urtean zehar eta UPV-EHUak antolatzen dituen udako ikastaroetan antolatzen diren ikastaroez gainera, Euskal Etxeetako irakasleentzako eta euskalduntze-mailak egiaztatzeko azterketetako aztertzaileentzako hitzaldiak eta prestakuntza-ikastaroak antolatu dira.

**Argitalpenak.** HABEren argitalpenen artean badira aldizkako argitalpenak, bildumak, talde berezientzako aldizkariak, irakasleentzako prestakuntza-bideoak eta material didaktikoak.





- HABE aldizkariak 2.750 ale argitaratzen ditu gaur egun; urtean 10 zenbaki argitaratzen ditu, eta horrez gainera PDF formatuan argitaratzen da (www.ikasbil.net) web orrian. Euskaltegi eta Euskal Etxe guztietan doan banatzen da. Ikasleei euskaltegiaz kanpo lan egiteko tresna bat eskaini nahi die, ikasitakoa finkatzen laguntzeko edo, ikasketak utzi baditu, euskararekin harremanetan jarraitzeko, euskara ikastearekin zerikusirik duen edozein gai interesgarriren berri emateaz gainera.
- HIZPIDE aldizkaria, helburua euskarako irakasleak prestatzea duena. Urtean hiru zenbaki argitaratzen dira, 570 aleko argitalpen batekin; unibertsitateetan banatzen dira; hizkuntzaren didaktika, psikolinguistika, pedagogia eta euskararen hizkuntzalaritza ditu gaiak. Gaur egun aldizkari honetan idazten duten egileen %90 baino gehiago unibertsitateko edo euskaltegietako irakasleak dira, beren esperientziak edo beren gogoetak ezaugarraziz edo beren ekarpenak eginez. HABEren zerbitzu teknikoetan prestatzen diren ponentziak zabaltzeko hedabide gisa ere erabiltzen da.
- «Itzulpen saila» bilduma, urteko aldizkakotasuna duena eta 450 aleko argitalpenak dituena, euskaltegietako irakasleen prestakuntzarako interes berezia duten liburu, artikulua eta bestelako itzulpen sail bat da. Formatu digitalean argitaratzeak merezi ote duen aztertzen ari da.
- «Osatuz aldizkaria» euskaraz ikasten ari diren osasuneko langileentzako aldizkaria<sup>7</sup> didaktiko bat da. Osasunari dagozkion gaiak gainera, gaurkotasuneko gaiak ere eskaintzen ditu. Urtean hamar zenbaki argitaratzen dira.

**Liburutegia.** Azkeneko bi hamarraldi hauetan HABEk eleaniztasunari buruz, eleaniztasunaren alderdi desberdinei buruz nazioartean argitaratutako argitalpen nagusiei buruzko dokumentazioa bildu, katalogatu eta gizartearen eskura jarri du; hala, HABEren liburutegiak 40.000 liburu, 650 aldizkari eta bestelako euskarrietan argitaratutako dokumentu asko ditu gaur egun. Hiru sailetan dago antolatuta:

- Eleaniztasunaren didaktika, soziologia, psikologia eta hezkuntza alderdiei buruzko dokumentuak biltzen dituena.
- Hizkuntzak irakasteko eta hizkuntzen auto-ikaskuntzarako materialez arduratzen dena.
- Euskarazko ekoizpen guztia biltzen duen saila.

Gaur egun 5.700 erabiltzaile ditu liburutegiak; era askotako profilak dituzte: euskara, ingeles, frantses eta beste hizkuntza batzuetako irakasleak eta ikasleak; administrazio publiko desberdinetako euskalduntze-teknikariak; unibertsitateko irakasleak eta ikasleak; ikertzaileak; doktore-ikasketak egiten ari direnak; herritarrok oro har. HABE Liburutegia era askotako liburutegi eta katalogo kolektibotako kidea da, gainera, bere ondarearen aurrez aurrekoaz bestelako erabilera indartzeko.

<sup>7</sup> Gaur egun formatu elektronikoan baizik ez da argitaratzen.

**Euskararen irakaskuntzan eta ikaskuntzan teknologia berriak erabiltzea.** HABEren web zerbitzuak helbide hauetan daude:

- [www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net) (Datu instituzionalak, informazioa eta kudeaketa)
- [www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net) (Didaktika eta komunitatea)
- [www.ikasten.ikasbil.net](http://www.ikasten.ikasbil.net) (On-line ikaskuntza)
- [www.osatuz.ikasbil.net](http://www.osatuz.ikasbil.net) (Osakidetzako komunitatearentzako didaktika)

IKASBILek dokumentu kopuru handi bat du bere ondarean: idatzizkoak, entzumenezkoak, bideoak, ariketa didaktikoak, sekuentzia didaktikoak, gramatikari buruzko dokumentuak eta abar. 2009-2010 ikasturtean zehar 511.689 bisita izan ditu eta 3.215.517 orri ikusi dira. Une honetan web 2.0 formatura eguneratzen ari da, eta bilaketa-sistema berriak planteatzen, teknologia berritzen, IKASTEN auto-ikaskuntzako plataformarekin batera planteatzen ari da, komunitate berriak sortzeko, erabiltzaileak erregistratzeko, sortaile/kontsumitzaile dikotomia hausten ahalegintzeko eta web sozialetan –facebook, twitter, eta abarretan– sartuta egoteko.

Ikus-entzunezko edukiei dagokienez, «Kerman, mintzalagun bila» programa prestatu eta Euskal Telebistako kateetan zabaltzea izan da 2009-2010 ikasturteko berrikuntza; bost minutuko iraupena du, eta egunero emititzen da, astebeteko bloketan banatuta; ikasleak on-line egiteko lan pertsonalerako sekuentziak ditu, hala ikus-entzunezko programetan eta sekuentzietan oinarritutako auto-ikaskuntzarako sinergiak sor daitezten.

Aipatzekoa da orobat BOGA, Internet bidez euskara ikasteko multimediazko sistema. Programa honek etxetik edo beste edozein lekutatik euskara irakasle baten edo gidari baten laguntzarekin ikasteko aukera ematen du. Gaur egun oso eskaintza zabala dago, 60 ikastetxetik gora baitira Euskal Herrian, eta beste 73 munduan zehar, programa hau eskaintzen dutenak.

## 2.2. **Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea**

### Testuingurua. **Prozesuaren emaitzak**

Ebaluazioa da ikaskuntza prozesu osoaren elementu nagusia eta prozesua egituratzen duena, eta egiaztapena ebaluazio horren alderdi partzial bat baizik ez da. Ebaluazio-irizpideak definitzeaz gainera, oinarritzko curriculumak ezartzen dituen euskararen ezagutza-maila desberdinak egiaztatzeko sistema ezarri behar da, eta Europako Esparruan ezarrita dauden ezagutza-mailen erreferentzia zehaztu behar da, gainera. 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak arautzen du sistema.

Prozesuaren emaitzek erakusten dutenez, 15.000 ikasle aurkeztu ziren 2009an azterketa horietara, eta 500 aztertzailek zuzendu eta kalifikatu zituzten. Urte horretan azterketetara aurkeztu ziren ikasleen %56k B1 maila gainditu zuten, %48k B2 maila, %29k C1 maila eta %46k C2 maila. 2010ean 17.679 pertsona aurkeztu ziren lau mailetak bi deialdietan eta %40,4k azterketak gainditzea lortu zuten.



## Programak. **Egiaztapen prozesua eta euskaltegiertzako aholkularitza**

**Oinarrizko curriculumeko mailen egiaztapena.** HABEK lau mailako sistema bat (Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1, B2, C1 eta C2 mailak) eta hamabi azpi-maila definitzen ditu bere curriculumean. Era berean, fidagarritasun-, baliotasun- eta praktikotasun-irizpideetan oinarrituz eta proben eta ikaskuntza prozesuaren artean lotura dagoela ziurtatuz garatutako egiaztapen-sistema bateratu bat definitu du euskaltegi guztietako ikasleentzat. Aipatzekoa da egiaztapen-sistemaren arkitektura erakusteko sistemaren garrantzia; 25 tutore daude horretarako, aztertzaileen prestakuntzaren eta azterketak zuzentzeko irizpideak bateratzeko ardura dutenak.

HABEK prestatzen ditu egiaztatzeko azterketak, deialdiak modu kontrolatuan egiten direla kontrolatzen du, kalifikazioak baliozkotzen ditu eta ziurtagiriak ematen ditu. Euskaltegiek badituzte ordezkaririk Azterketen Batzordean, probak zuzentzeko eta kalifikatzeko epaimahaietan, eta beraiek jartzen dituzte irakasleak eta aztertzaileak. Horrez gainera lankidetzan jokatu du beste Sailekin euskararen ezagutza egiaztatzeko prozesuetan.

**Euskaltegien irakaskuntza-jarduerarako aholkularitza.** Esparru honetan irakaskuntza-jardueraren adierazleen txosten bat prestatzen da urtero, euskaltegiek beren bilakaera aztertzeko eta beste euskaltegi batzuenarekin alderatzeko tresna bat izan dezaten.

Eta, azkenik, HABEK aholkularitza ematen die beren jarduerak dituen puntu sendoei eta ahulei buruz, beren kudeaketa hobetzen laguntzeko.

### 2.3. **Sektorearen antolamendua, jarraipena eta finantzaketa**

#### **Testuingurua. Sostengua eman beharreko eragileen mapa zabal bat**

Euskal Autonomia Erkidegoan 105 euskaltegi daude gaur egun. Euskaltegi horien izaera juridikoari dagokionez, 39 udalaren jabetzako ikastetxe publikoak dira eta 66 ikastetxe pribatuak. Euskaltegi pribatuetako asko federazioetan elkartuta daude (AEK, Elkarlan, Batuz, IKA). Lurralde banaketari dagokionez, Bizkaian 48 ikastetxe dira, Gipuzkoan 42 eta Araban 15. Horiez gainera, ez dira ahaztu behar Auto-ikaskuntza Ikastetxe Homologatuak. Era honetako zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegi askotan eta Euskal Herriaz kanpoko beste ikastetxe batzuetan ere eskaintzen da.

Horrez gainera badira euskaltegiak Nafarroako Foru Komunitatean ere (Euskarabideren mende) eta Ipar Euskal Herrian (Frantziako administrazioaren mende), eta Euskal Herriaz kanpo ere helburu, erritmo eta ikasle mota oso desberdinak dituzten euskalduntze-ikastetxeak.

Euskaltegien arautzeari, jarraipena egiteari eta finantzatzeari dagokienez, HABEk arautzen du horien eskaintza eta eskaria, laguntzetarako deialdien bitartez. Antolamendu horretarako oinarrizko baliabidea euskaltegien eta pertsona helduentzako irakaskuntzan diharduten gainerako ikastetxe homologatuen jarduerari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ikastetxe horiek finantzatzea arautzen duen uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren garapena da.

Garapen horren oinarrizko printzipioak dira, alde batetik, zerbitzu publikoen eta pribatuen osagarritasuna eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritako lehentasunak, bestetik.

#### **Programak. Sektore honi laguntzeko baliabideak**

**Euskaltegien eta gainerako ikastetxe homologatuen jardueraren antolamendua eta jarraipena.** Eginkizun hauek euskaltegiak arautzen dituen dekretuan agindutako baldintzak euskaltegietan ongi betetzen diren egiaztatzeko ikuskaritza-planaren bitartez betetzen dira.


Beste alde batetik hitzarmenak sinatzen dira zenbait erakunderekin, HAEE, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin eta beste administrazio eta enpresa publiko batzuekin, beren langileen euskalduntzeari heltzeko. Hitzarmenen bidez inskribatutako ikasleen matrikulek 4,4 milioi euroko gastua eragin zuten 2009an, eta 2010ean 4,1 milioi eurokoa izan zen kopuru hori.

Programa hauen osagarri gisa, on-line eguneratzen diren jardueraren jarraipenari buruzko datuek eta sektore honen jarduerari ezagutarazteko eta matrikulazioa ugaltzeko egiten diren sentsibilizazio-kanpainak daude.

**Finantzaketa.** Euskalduntze-alfabetatzearen sektorearentzako laguntzei dagokienez, euskaltegien eta euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten auto-ikaskuntzako ikastetxe homologatuen jarduera finantzatzeko egiten diren ohiko deialdiez gainera, curriculumeko mailaren bat gainditzen duten ikasleentzako laguntzak daude. Eta, azkenik, deialdi berezi bat egiten da Euskal Etxeetan ematen diren euskarazko ikastaroak finantzatzeko laguntzetarako. Diruzko eta bestelako laguntza horiek guztira bateratuta, HABEren gastuaren %75 inguru hartu dute 2009an eta 2010ean; 34 milioi euro inguru izan dira:

- Euskaltegienezako eta auto-ikaskuntzako ikastetxe homologatuentzako laguntzak. Ikastaro bakoitzerako kudeatzen dira, bi deialdiren bidez:
  - Udal euskaltegi publikoak; halakoetan HABEk hartzen du bere gain langile finkoen soldataren karga. 2009an 11 milioi euro xedatu ziren honetarako; 2010ean 12,6 milioi euro izan dira.
  - Euskaltegi pribatuak; 2009an 21 milioi euro inguru xedatu ziren honetarako, eta 2010ean 19,4 milioi. Honelakoetan oinarritzko moduluak irakaskuntza-orduka subentzionatzen dira, eraginkortasunezko parametroen bidez sustaturik.
- Ikasleentzako laguntzak. Deialdi publiko bat egiten da euskararen ezagutza-mailak gainditu dituztela frogatzen duten ikasleentzat, eta ordaindutako matrikula osorik edo partez berreskuratzeko aukera dute. 2009an eta 2010ean 1,8 milioi euroko partidak mantendu dira urte bakoitzerako.
- Euskal Etxeentzako laguntzak. Deialdi berezi baten bidez kudeatzen dira; 220.000 euro bideratu ziren honetarako 2009an eta 230.000 euro 2010ean





### 3. **Etorkizuneko erronkak**

HABE sortu zenetik hogeita hamar urte joan direlarik, demografian, hezkuntzan, gizartean eta ekonomian izan diren aldaketek erakundearen jokaeraz gogoeta sakon bate egitea eskatzen duen egoera batean aurkitzen da erakunde hori. Alderdi asko dira etorkizunerako estrategiak berriro diseinatu behar direla argi uzten dutenak: biztanleriaren zahartzea eta HABEk arreta eskaintzen dien biztanle gazteagoak urritzea, ikasketak D ereduan egiten dituzten ikasleak ugaltzea eta horrenbestez euskararen ezagutza-maila zabaltea, baldintzatzen gaituen egoera ekonomikoa eta teknologia berriek irakaskuntzan duten eragina eta eskaintzen dituzten aukerak, besteren artean.

Berrikusketa hori helduen euskalduntze eta alfabetatze sarea osatzen duten eta haren ezinbesteko parte diren euskaltegiekin, administrazioekin eta eragileekin batera egin behar da, HABEk eragile nagusia den aldetik izan behar dituen jardunbide berriak zehazteko eta definitzeko.

Presako eginkizuna da, beraz, euskaltegietara hurbildu eta protagonismo handiagoa ematea, eta gauza bera herritarrei ere, irakaskuntza-metodo eta sistema malguagoak eta beren premia berrietara hobeto egokitzen direnak planteatuz. Alde honetatik, euskaltegiekin, EUDELekin, HAEerekin eta beste eragile batzuekin elkarlanean garatzen ari den plan estrategikoak markatuko du datozen bi urteetan jarraitu beharreko bidea.